

Matematikak familia-bazkarian

Lide eta Enekoren aiton-amonak munduari bira ematera doaz, itsasontziz!
Abiatu aurretik, familia-bazkari erraldoia egingo dute, eta senide guztientzat eserlekuak biltzen ari dira anai-arreba biak. Marikalanbreren etxera doaz orain. Atarian topatu dute, zain.

–Egun on, bikote! Sartu, egongelan dituzue aulkiak.

–Eskerrik asko.... –esan dio, ahopean, Enekok.

–Zer duzu, Eneko? –galdetu dio Marikalanbrek-. Zerbait gehiago behar duzue, ala?

–Asmatu duzu, bai. Beste mesede bat eskatu nahi dizugu.

–Hori da! –berretsi du Lidek-. Enekok eta biok apustu egin dugu, izeba Nereren mutil-laguna osaba Patxi baino gazteagoa edo zaharragoa ote den. Eta ez dakigu nola asmatu zenbat urte dituen, zuzenean galdetu gabe. Lagunduko? Erdi sorgina, erdi magoa zarenez...



Zortzi zati, hiru ebakirekin

Litekeena da opil bat zortzi zati egitea, soilik hiru ebaki ginda?

Materiala

Opil bat
Labana bat

Zer egin?

Ipuina irakurri baduzu, badakizu nola egin, ezta? Ea ba! Aurrena, zeharkatu opila, alderik alde (horizontalean). Gero, goitik beherako bi ebaki egin (bertikalean), gurutze itxuran. Badituzu zortzi zati!

Zer gertatu da?

Horizontalean ebakitzean, bi zati lortzen dira. Bi ebaki bertikalekin, berriz, lau. Eta bi bider lau zortzi denez, zortzi zati ateratzen dira, hiru ebakirekin!



–Ez sorgin, ez mago, zientziazale naiz ni
–erantzun die Marikalanbrek, bizi-bizi–. Eta matematikei esker, Nereren mutil-lagunaren adina ez ezik, zein hilabetetan jaio zen ere asmatuko duzue.

–Bikain!

–Lehenik, emaiozue kalkulagailu bat. Zenbatgarren hilabetea jaio zen pentsatu behar du (1=urtarrila, 2=otsaila...). Isilean, zenbaki hori bider bi egin dezala, eta, gero, gehi 5. Jarraian, ateratakoa bider 50 egin behar du, eta, azkenik, bere adina gehitu. Orduan, emaitza zuei esateko eskatu.

–Eta??

–Zuek 250 kendu behar diozue zenbaki horri. Hiru edo lau zifrako zenbaki bat lortuko duzue. Ba, eskuineko biak adina dira, eta ezkerrean geratzen dena, hilabetearen zenbakia.

–Uauuu!! Sinestezina! –atera zaie bieie batera.

Bat-batean, magia balitz bezala, Amona Txinparta agertu da.
–Gustatu zaizue trikimailua, ezta? –galdetu die oraindik aho-
zabalik dauden anai-arrebei–. Ba nik badut beste bat, biharko
apropos-aproposa. Hau da erronka: nola egingo zenukete opil
bat zortzi zatitan banatzeko, soilik hiru ebaki eginda.



–Hiru bakarrik? –egin du protesta Lidek–. Laurekin erraza da, baina...

–Nik badakit –esan du mahai azpitik datorren ahots batek.

–Sagutxo bat al dugu hor? –Amona Txinpartak galdetu orduko, mutiko bat azaldu da.

–Amona, asmatu duzu, Sagutxo da –esan du Enekok–. Bistan da, Marikalanbrek eta bere amonak dena asmatzen dute!



Amonak gogoan du Sagutxori trikimailua erakutsi zion eguna. Gustura eman dizkio opila eta labana.

–Ea Sagutxo, erakutsi zure trebezia.

Eta hark, ezer esan gabe, labana hartu eta, opila alderik alde zatituz bi zati egin ditu, eta, goitik beherako beste bi ebaki eginda, zortzi zati lortu ditu.

Txalo-zaparradaren ondoren, di-da batean jan dute opila denen artean.

